



Hondakin arriskutsuen garraiolariei ezarritako baldintzak eta betebeharrak

1. Dagokionean eta Hondakin eta Lurzoru Kutsatuei buruzko uztailaren 28ko 22/2012 Legeak 20.4.b) artikuluan adierazitako finantza-bermeak kuantifikatzen direnean, haien araubide juridikoa ezarritik, inskripzioa ofizioz berrikusiko da, eta dagokion finantza-bermea eratuko da, administrazio honi hondakin arriskutsuak garraiatzearen ondoriozko betebeharrak betetzeari erantzuteko.
2. Bete beharko dira hondakin arriskutsuen garraiolariei honako hauetan ezartzen zaizkien betebeharrak: 22/2011 Legea, uztailaren 28koa, hondakin eta lurzoru kutsatuei buruzkoa; 553/2020 Errege Dekretua, ekainaren 2koa, Estatuaren lurraldearen barruko hondakinen lekualdaketa arautzen duena; horiek garatzeko gainerako araudia, eta sektoreko beste araudi batzuen arabera, aplikatzekoak zaizkion preskripzio teknikoak.
3. Hondakin arriskutsuen garraiolari-jardueraren komunikazioan adierazitakoa bete beharko da.
4. Artxibo fisiko edo telematiko bat eduki beharko da, non, ordena kronologikoan, hondakin arriskutsuen garraiolari gisa jarduten duen hondakinen kantitatea, izaera, jatorria, helmuga eta tratamendu-metodoa jaso beharko diren.
5. Gutxienez hiru urtez gordeko da informazioa artxibatuta.
6. Behar den laguntza eman beharko zaie agintari eskudunei eta, egoki denean, behar bezala eguneratutako artxibo kronologikoa eskuragarri jarriko da. Horrela, haiek aukera izango dute azterketak eta kontrolak egiteko, laginak hartzeko, informazioa biltzeko, dokumentazioa egiaztatzeko eta beren eginkizuna betetzeko beste edozein eragiketa egiteko.